




Gorliz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen gidabaimenaren proba teorikoa euskaraz ateratzeak saria lekarke. ▶4

Jai-giroan txonbo egiteko ia-ia azkenengo aukerak izango dituzue, Urdulizen eta Erandioko Lutxana auzoan, aste-akabu honetan. ▶2-4



hiruka

Uribe Kostako astekaria



68. zenbakia

2016ko
irailaren 15etik
irailaren 21era arte



Getxoko Milia, 10. ekitaldia

Zapatu honetan, jokatuko da Getxoko Milia hamargarrenez, Algortan, ehunka zaleren aurrean. ▶21



KULTURA URIBE KOSTA

Eta irabazleak dira...

Erakusketa osatuko duten 40 testuak eta horiek oinarri dituzten 10 argazkiak Algortako Torrene aretoan ikusgai egongo dira, urriaren 13tik aurrera.

▶18

KULTURA PLENTZIA

Esaera zaharren lehia

Plentziako Esaera Zaharren Txapelketa irailaren 24an izango da; hilaren 20ra arte egongo da izena emateko aukera.

Zazpi, ezkabiltza gaizki goiburuagaz, irailaren 24an, zapatua, izango da atso-titzen jaialdia, Plentzian. Partaideek bertsoan kontatzen den egoeragaz lotutako esaera zaharra igarri beharko dute. Sustrai Colina eta Oihana Bartra bertsolariak abestuko dute. ▶18

hiruka

Ikasturte
berrirako eskaintza



▶9-16



Ikastaroak Algortako Martikoena kalean dagoen Jabekuntza Eskolan izango dira.

Emakumeentzako ikastaroak, prest

Jabekuntza Eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu ikasturte berrirako; hilaren 20a arte izena eman daiteke.

Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak, 2004. urtean ekin zion bere ibilbideari. Orduetik, ehunka emakumek parte hartu dute egitasmo horretan. Horren bidez, arduradunek azaldu dutenez, «emakumeak ahalduz lagundu gura dugu, baita politikan eta jendartean euren parte hartzea sustatu ere». Hori hala, aurrean ere hainbat ikastaro antolatuko eta eskainiko dituzte, hala nola: Jende aurrean hitz egin (20 ordu), Nire mugak sentitzea (20 ordu), Amentzako kafea (20 ordu), Maitatzen ikasten (48 ordu), Doluaz hitz egin dezagun (11 ordu), Emakume sahararren memoria berreskuratzen (3 ordu), Jabekuntza-

rako kultura arteko gunea (15 ordu), Autodefentsa feminista (12 ordu), Feminismoa eta bakearen eraikuntza: estereotipoak apurtzen (3 ordu) eta Zoru pelbikoa indartzen (20 ordu).

Horietakoren batean parte hartu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute, hilaren 20a baino lehen. Izena eman dutenen artean zozketa egingo dute, eta, lekua lortuz gero, matrikula irailaren 27tik urriaren 4ra egingo dute. Jakinarazi dutenez, parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 ikastarotan eman ahal izango du izena; leku-kopurua mugatua delako. Getxon errolatutako emakumeek lehentasuna izango dute. Aurretiko izen-ematea eta geroko matrikula ere Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan bertan egin beharko dituzte (Martikoena kalea, 16. zenbakian); astelehen, martitzen eta barikuetan, 08:00etatik 13:00etara, edo eguazten eta eguenean, 15:00etatik 20:00etara. Ikastaroak eskolako egoitzan bertan izango dira. ◀

info+: www.getxo.eus

Lur-eremu iragazkorak porlanez bete izana salatu dute

Getxoko Udalak garatu duen hirigintza politika salatu du Gobelak Kaltetutako Auzokideen Elkarteak. Diotenez, Gobelaren arro inguruko garapen urbanoa porlanez «beteta» dago, eta horrek «lurrak duen ura xurgatzeko eta gordetzeko ahalmena murriztu du, uraldiak izateko arriskua areagotuz». Euren ustez, ibaiak naturalki eduki dituen urak gainezka egiteko eremuak porlanez bete izanak uriolak izateko arriskua mantentzea eta «URAk garatutako ekintzak pikutara eramatea» eragingo du. Azken sei urteotan erakunde horrek martxan ipinitako obrak ontzat eta

beharrezkotzat jo dituzte auzokideek; hala ere, salatu dute uholde-arriskua handiagoa izango dela hainbat lekutan, barbarako Larrañazubi, Fadura, Neguri Langile eta Salsidun.

Hori dela-eta, auzokide elkarte horrek urbanizatzeko eremu berrietako drainatze-araudia handitzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Neurri horrez gura dutena da eremu iragazkor gehiago ez galtzea eta ez eraikitzea urak gainezka egiteko ibaiak dituen gunen naturalean. Horrez gainera, Getxoko Udalaren ingurumenaren mantentze-lanak kritikatu dituzte, ez dituztelako «behar bezala» garatu. ◀

URAk Gobela egokitze lanak amaitu ditu, Errekaganen

URA Uraren Euskal Agentziak oraintsu amaitu ditu Gobela ibaian egiten zebilen egokitze hidraulikorako eta ingurunea leheneratzeko lanak; hain zuzen ere, Errekaganen inguruan egin dituzte beharrok, Cristobal Valdes hustubidetik Avanzadarainoko tartean, 762 metro luzeran. Horiek gauzatzeko hiru urte behar izan dituzte, eta 16, 2 milioi euro inbertitu dituzte. Tragsa enpresak egin ditu

lanak, fase bitan: lehenengoa, 400 metroko luzerakoa, Cristobal Valdeseko gainezkabidetik Avanzadako zubirainokoa, 2013ko apiriletik 2015eko abendura bitartean egin zuten, 10,7 milioi euroko inbertsioa izan zen; bigarrena, 362 metrokoa, Avanzadako zubitik Leioa hiribideko zubirainokoa, 2015eko martxotik 2016ko martxora bitartean egin dute, eta 5,5 milioi euro bideratu dituzte. ◀

Erandio

Barikutik domekara, jaietan murgilduko dira lutzanatarak

Bolbora usaina dario Erandioko Lutzana auzoari. Izan ere, txupina jaurti eta auzoko jaiei hasiera emango diete barikuan, hilaren 16an, arrastiko 07:30ean. Ostean, txorizo-jana, mus-txapelketa eta Xaiborren disko-festa egongo dira bertaratuko diren guztien gozamenarako. Hurrengo egunean, zapatuan, hainbat ekitaldi egongo dira, gazte eta nagusientzat, esaterako familiarako jokoak, tortilla-txapelketa, herri-bazkaria, futbol-txapelketa, umeentzako mozorro-bena eta kontzertua. Domekan ere ez da aspertzeko tarterik egongo: indaba-txapelketa, umeentzako jolasak, abesbatzaren kantaldia, luntxa, herri-bazkaria, postre-lehiaketa, umeentzako antzerkia, sokatira-erakustaldia eta txokolate-dastaketa egongo dira, besteak beste. Hala, egundoko jai-giroaz gozatu gura duenak Lutzanara hurbildu besterik ez du egin behar izango. ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 16, barikua

19:30 Txupinaren jaurtiketa.
20:00 Txorizo-jana.
20:00 Mus-txapelketa.
20:30 Xaiborregaz, disko-festa.

Irailak 17, zapatua

12:00 Familiarako jokoak.
12:00 Tortilla-txapelketa.
12:30 Igel-tokako txapelketa.
15:00 Herri-bazkaria.
16:30 Umeentzako futbol-txapelketa.
17:00 Mus-txapelketa.
18:30 Umeentzako disko-festa.
22:30 Kontzertua, Hotz taldeagaz.

Irailak 18, domeka

10:00 Il. Indaba-txapelketa.
11:30 Umeentzako jolasak.
13:00 Mendibitate abesbatzaren emanaldia.
17:00 Sokatira-erakustaldia.

SUKALDARI BAT
BEHAR DUGU
ESPERIENTZIA DUENA

Astean 25 lanordu,
12:00etatik 17:00etara

txakoli
mota
ganeTx
txakolina

629 844 915
info@txakolimotagane.com

Iñaki
Bitxitegia



Montblanc, Longines eta
TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta



Ideen sokadantza

GORKA
MOSTAJO GALDUROZ
Gizarte Langilea

Zenbat buru, hainbat aburu

Barkatuko didazue baina oraingoan, beste kontu askori buruz idazteko gogo dudana arren, gazteria eta politikaren inguruan idazteko beharra dut. Behintzat nik Algortan dudana esperientziaren inguruan eta beste herri askotarako aplikagarria dena, nire uste apalean. Urte hasieran mantendu genuen elkarrizketa atsegin batean «Ausarta zara ezker abertzaleko gazteria nagusi den herri batean EAJkoa zarela esaten» esan zidan aspaldi ikusi gabe nuen ikaskide ohi batek. Harrituta utzi ninduen «Ausarta?». Nire iritzia ematen duen gazte bat besterik ez naizela erantzun nion, eta ezker abertzalea Getxon, laugarren indarra dela gogorarazi nion, EAJ lehengoa delarik. «Hain arraroa ote naiz?», pentsatu nuen. Ziur ezetz. Badakit ezetz.

Portu Zaharreko jaietan, ezker abertzaleko lagun batekin inguratzeko gintuen parafernalia politikoaz hausnartzen geundelarik, niretzat kontu honetan gako den esaldia bota zidan: «hemengo gazteria ez da Ezker Abertzalekoa, *van de que son de la izquierda abertzale*». Arrazoi guztia eman nion, horrela pentsatu izan dut beti. *Postureo* asko dagoela uste dut, batez ere jai herrikoietan. Kurioa da jai herrikoiek ez direla herriaren isla; agian horregatik gazteriek ez du islatzen, kaleari, ikastetxe elektoraletan aukeratzeko duena?

Nik gazteak lasai asko euren iritzia ematera animatzen ditut, euren aukera politikoa edozein delarik ere. Ez dago arazorik. Osasuntsua da gizartearen iritzia desberdinak egotea, aberasgarria. Iritzia publikoki emateak ez gaitu inoiz lekuz kanpo sentiarazi behar. Jendea desberdin pentsatzeagatik baztertzeko duenak du arazoa, ez norberak. Baina, tira: baliteke publikoki iritzia ematea horren erraza ez izatea jendeak horretarako «ausarta» izan behar dela uste baldin badu... ◀

Sopela

Gurpil gaineko taupada

Txirindulari hasiberriak hezteko egun bateko saioa egingo dute, domekan, Sopelako Zipiriñe eskolako patioan.

Gaur egun gero eta txirindulari gehiago ikus daitezke kaleari. Lasterka edo paseoan, han-hemenka dabilta adin guztietakoak; hori dela-eta, bizikletan modu egokian ibiltzeko eta istripuei aurrea hartzeko asmoz, EAEko hainbat enpresek sortutako «Gurpil gaineko taupadak» kanpaina ekarriko du Udalak Sopelara, erabiltzaile hasiberriak bi gurpildun garraio horretaz eta horren inguruko denaz kontzientziatu ahal izateko. Horretarako hitzordua hilaren 18an ipini dute, domekan, Zipiriñe eskolako patioan, 11:00etatik 14:00etara. Ekimena Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei zuzenduta dago, hau da, 9 eta 12 urte arteko neska-mutilei. Izan ere, programaren sortzaileen arabera, adin-tarte hori «oso interesgarria da, bizikletaren erabilera, onurak eta zirkulaziorako segurtasun-mekanismoak sustatzeko orduan». Hala,

info+: www.latidosobreruedas.com

Zipiriñera bertaratuko diren neska-mutilek bide-hezkuntzarako zirkuituan praktikak egiteko aukera izango dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, gazteek zenbait arduren arabera jokatu dute zirkuituan: oinezkoak, txirindulariak edo poliziak izango dira. Enpatia lantzeko asmoz, zeregin bakoitzeko sentazioak bizitzea izango da jardueraren helburua. Zirkuituan ibili ostean, neska-mutilek ginkana berezi batean parte hartzeko aukera izango dute, eta,

amaitzeko, *trialsin*-erakustaldi batez gozatu ahal izango dute. *Trialsin* dela-koa, bizikleta gainean egiten den trial modalitate bat da, motozikletetan egiten denarenetik eratorria.

«Gurpil gaineko taupadak» kanpainak bizikletaz zelan ibili behar den kontzientziatzea du helburu, istripu-arriskuak txikitzeko: segurtasun elementuak, bizikleta gainean eskuez egin beharreko seinaleak eta bideko seinaleak ezagutzea, besteak beste. ◀

Leioa

Udaletxean egin daitezke trafikoko gestioak daborduko

Leoako Udalak eta Espainiako Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) akordioa sinatu dute informazio-trukaketa errazteko eta administrazio-elkarkidetzak sustatzeko. Horri esker, leioaztarrek ez dute Bilboraino joan beharrik izango gidatzeko eta zirkulazio baimenen helbidea aldatzeko, udaletxean bertan egin ditzakete aldaketa horiek. Hitzarmen horrek, hainbat berritasun ekarriko ditu leioaztarren eta administrazioaren mesederako. Udaletxera edo Gaztelubideko bulegora erroldatzera edo helbide-aldaketa bat egitera doan edozein leioaztarrek ibilgailuko helbidea ere alda dezake momentu horretan. Modu berean, gidatzeko baimenean agertzen den helbidea ere alda dezake udaletxean bertan. Horrez gainera, Trafikoko Zuzendaritza Orokorra bere datu-baseko sarbidea emango dio Udalari, Udal Ekonomi Arloari eta Segurtasun Sailari laguntzeko. ◀

info+: www.hiruka.eus

Haur Hezkuntzako eraikina berriztu du Betiko ikastolak

Ikasturte berriari behar den moduan eta gogotsu hasteko, Betiko ikastolak Haur Hezkuntzako eraikina berriztu du, ikastetxeko txikienek ahalik eta gehien goza dezaten. Bertako arduradunek azaldu dutenez, obrak uztailaren 1ean hasi eta abuztuaren 25ean amaitu ziren, arkitektoak eta proiektuaren aholkulari pedagogikoagaz lan handia egin ostean. Hala, lehenengo solairuan hormak bota dituzte, sehaska-gela izan ezik; 0, 1 eta 2 urteko ume guztiak elkarregaz egoteko. Modu berean, 2. solairuan, 3 eta 5 urte arteko umeen gelak lotu dituzte, euren arteko komunikazioa askea izan dadin. ◀

tuaren aholkulari pedagogikoagaz lan handia egin ostean. Hala, lehenengo solairuan hormak bota dituzte, sehaska-gela izan ezik; 0, 1 eta 2 urteko ume guztiak elkarregaz egoteko. Modu berean, 2. solairuan, 3 eta 5 urte arteko umeen gelak lotu dituzte, euren arteko komunikazioa askea izan dadin. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Uribe Kosta

Azterketa, euskaraz

Gidabaimena ateratzeko proba teorikoa euskaraz egiteagatik 100 euroko erregai-txartelak zozkatuko dituzte eskualdean.

Daborduko, gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar Uribe Kostako hainbat lekutan. Eskualdeko hainbat herritan, ekimen horrek martxan daroa aspalditik; baina, orain, Gorliz, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen ere laguntza jasotzeko aukera izango dute ikasleek: gidatzeko azterketa teorikoa euskaraz eginez gero eta zozkatuko duten 100 euroko txekoa irabazten badute. Hau da, ekimenean parte hartzen duten autoeskoletako ikasleen artean 100 euroko erregai-txartelak zozkatuko dituzte. Antolatzaileek jakinara-



Gorliz, Sopela, Plentzia eta Urdulizko autoeskolak gehitu dira ekimenera orain. © GIDATU AUTOESKOLA

zi dutenez, ekimenean parte hartzen duten lau herri horietako autoeskolak hauek dira: Gorlizko Gidatu (Iberre zeharbidea, 12); Sopelako Kaiku (Sipiri kalea, 4), Sopelana (Sertutxa kalea, 6) eta Uribe Kosta (Laubide kalea, 7);

Plentziako Uribe Kosta (Portaleta kalea, 11); eta Urdulizko Kaiku (Gobela kalea, 3). Ekimena 17 eta 23 urte arteko neska-mutleiei begirakoa da. ◀

info+: 946 579 279
euskeraz@uribekosta.org

Plentzia

Urriaren 1ean Enkarterriak ezagutzeko, irteera

Sanantolinen ajearen ostean, irteerak egiteko ordua heldu zaie plentziarrei. Hori hala, Plentziako Udalak Karrantza, Pozalagua koba eta Balmaseda ezagutzeko irteera antolatu du urriaren 1erako. Horretarako, interesatuek aldeztu beharko dute izena: errolatutakoek hilaren 16a baino lehen, eta gainontzekoek hilaren 19tik 23ra bitartean. Lehenengoek 20 euro ordaindu beharko dituzte; bigarrenak, berriz, 30 euro. Prezioaren barne: autobusa, Karpinerako sarrera, Pozalagua kobarako sarrera, bazkaria Garras jatetxean eta autobuseko aseguru egongo da. Azaldu dutenez, bazkariko menua honakoa izango da: babarrunak eta marmitakoa; bakailaozko piperrak eta Karrantzako ardi gisatua; postrea, ogia, ardoa, kafea eta tragoxka. Autobusa 08:00etan irtenango da, Ontziola plazatik. ◀

info+: www.plentzia.eus

Berango

Udalak 30 herritar laneratzen laguntzeko programa abiatu du

Berangoko Udalak udalerriko bizilagunak gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko programa martxan ipini du. Pail Berango 2016 izeneko egitasmo horretan, gutxienez 30 lagunek parte hartu ahal izango dute. Horren bitartez, Udalak hurrengo lortu gura du: parte-hartzaileen gizarte- eta lan-trebetasunak sustatzea, eta gizarteratzea eta laneratzea erraztea. Hala, programan parte hartuko dutenek enplegua bilatzeko teknikak ikasi, laguntza psikosoziala jaso, curriculum eta aurkezpen gutunak egiten ikasi, baliabideen gaineko informazioa jaso eta elkarrizketak egiteko eta hautake-

ta prozesuetan parte hartzeko prestakuntza jasoko dute, arduradunek azaldu dutenez. Egitasmo hori talde zehatz batzuei zuzenduta dago; Udalak jakinarazi duenez, besteak beste, hauei: bazterketa arriskuan daudenei; DSBE prestazioa jasotzen dutenei; iraupen luzeko lanbakoei; 45 urtetik gorako langabeei; 30 urtetik beherako gazteei eta gutxiengo etnikoei.

Pail Berango 2016 programan parte hartu gura dutenek izena emateko aukera izango dute irailaren 16ra arte, barikua. Horretarako, Berangoko udal txerara jo beharko dute, 09:00etatik 14:00etara bitartean. ◀

Urduliz

Andra Mari jaiek oraindino asko dute eskaintzeko

Joan dira daborduko Urdulizko andramarien lehenengo egunak. Hilaren 8an hasi ziren jaiek jendez gainezka utzi zuten elizaren ondoko landa; orain, jai-eremuak eta txosnaguneak Elortza auzoa hartuko dute, hilaren 16tik 18ra. Tarte horretan, urduliztarrek zein ingurukoek hamaika aukera izango dute jaiak gozatzeko. Hala, skate-saioa, eskubaloi-partidak, pala-partidak, bertso-saioa eta kontzertuak egongo dira barikuan, hilaren 16an, besteak beste. Hurrengo egunean, zapatuan, herri-martxa, kalejira, herri-bazkaria, dantza-ikuskizuna, kirol-emanaldiak eta erromeria presta-




Joan den egunean hasi ziren jaiak.

tuko dituzte, barbarako. Domekan, mus-txapelketa eta zumba- zein tango-erakustaldiak egongo dira, Andra Mari jaietara amaiera emateko. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 - 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus



aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GAVRKO
1967



GIZONENTZAKO
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84



Sekula Betikotik

ITXASO
PAYA RUIZ
Sortzailea

Krokodiloak jada ez dira gose

Sekula Betiko lurraldeko ume galduak gogoratzen? James Matthew Barrie idazleak sortutako pertsonaiak dira; mofeta, untxia zein azeriaren larruaz jantzita txistuka zebiltzan horiek. Kensington Gardens-en euren zaintzaileek galdutako umeak dira; galdu eta lehenbiziko zazpi egunetan beraiengatik inork galdegin ez zuenez, Sekula Betiko Lurraldera eraman zituen Peter Panek. Hazteari uko egiten dioten umeak dira.

Sekula Betiko Lurraldetik kanpo zaila da hazteari uko egitea. Gu txikitan ez ginen galdu edo, galdu baginen, bederen, baten batek gugatik galdegin zuen zazpigarren egunsentia baino lehen. Guri bide bat erakutsi ziguten gal ez gintezen eta kasabilaria lepoan jarri, baita izen abizenak estutxean josi ere, badaezpada. Gauero leihotik begira egoten ginen hauts magikodun maitagarria noiz iritsiko zain. Gerora, hainbestetan begiratu izan genuen leiho beretik behera rapelatzen ikasi genuen. Zoritxarrez, etxetik alde egitea eta nahigabe galtzea ez dira gauza bera. Beraz, Peter ez zen gure bila etorri eta sekula ez dugu Sekula Betiko Lurraldea ezagutu.

Bertako ume ez galduok nagusitan zer izango ote ginen pentsatzen ematen genituen jolas orduak. Ile-apaintzaile, astronauta eta albaitari izan nahi genuen askok. Dena den, gure artean bazen nagusitan pirata, larrugorria, maitagarria zein krokodilo izan nahi zuenik. Bi hamarkada eta gero; piratak itsasoaren beldur dira, larrugorri gutxirentzako buruzagi gehiegi dago, maitagarriek ez dute haien buruarengan sinesten eta krokodiloak ez dira gose. Eta badakizue zer? Peter Panek goizero bizarra egiten du.

Tamalez, denok Wendy izaten amaitu dugu, gehienok bai behintzat. Ze erremedio. ◀

Uribe Kosta

Leioatik irtengo da Urdulizko ospitalerako autobus-linea berria

Urdulizko ospitalera joango den Bizkaibuseko linea berria Leioako herrigunetik aterako da, eta ez Erandiogoikoatik, aurretik agindu zuten legez. Hala baieztatu du Vicente Reyes Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuak. Izan ere, Jon Darpón Osasun sailburuak joan den ekainean onartu zuen Erandioko bizilagunek Gurutzetara joaten segituko dutela, hasierako proposamena aldatuta. Hasiera batean, Bizkaibuseko linea berria Erandiogoikoa auzotik

irtetea erabaki zuten, Erandioko bizilagunak Uribe Kostako ospitale berri- bideratu zituztelako. Ostera, egoera hori aldatu egin da, eta Gurutzetako ospitalera joaten segituko dute. Horrenbestez, ez dauka zentzurik linea berria auzune horretatik irteteak. Aurrerantzean, Leioa erdigunetik irtengo da, Artatzatik eta Neguriko Makalenta etorbideetik pasatuko da, Algortako beheko aldetik Berangoraino joango da, eta, Sopelatik igaro ondoren, helmuga Urdulizko ospitalean izango du. Linea berriaren zerbitzua aurrez

ikusitako epeetan abiatuko da. Hala ere, Leioako bizilagunak Gurutzetako ospitalera joaten jarraitzea eskatu du Leioan Bizi elkarteak, Urdulizkoa bestea baino urrunago dagoelakoan. Horrez gainera, euren ustez, «odisea» lakoa izango da Leioatik hara joatea hondartza-garaian. Hori dela-eta, herritarrek zein ospitalera joan gura duten jakiteko herri-bozketa bat abiatu dute Interneten, agintariak herritarren iritzia kontuan har dezaten. Daborduko, horren alde egin duten 600 sinadurara baino gehiago batu ditu elkarteak. ◀

HEMEN
eta ORAIN
DENON HERRIA



Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakari gata

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU ehbildu

Sopela Kosta

Musika + Surfa + Natura

Inoiz baino surf gehiago eta Euskal Herriko musikarien pisu handiagoa. Horiek izango dira irailaren 22tik 25era artean Sopela Kosta Festen hirugarren jardunaldiak izango dituen ezaugarri nagusietako bi. Ohikoa denez, Bizkaiko kostaldeko herri honetan egiten den jaialdiak natura, surfa, surfaren kultura eta musika izango ditu ardatz aurten ere.



Irailak 22-25

info+: www.sopelakostafest.com

Fest 2016

Musika

Irailak 23, ostirala

Valentziako **La Pulquería** taldea izango da zerrenda-burua eta ohikoak dituen musika estiloak nahastuko ditu, tartean mexikar korridoa, ska edota hard rocka. Egun horretan, Amerikar Estatu Batuetako Eagles taldearen omenez egiten duen rocka joko du Hey **Mr. Neken** taldeak, **Belize** gipuzkoarren aurretik. 90eko hamarkadan Kashbad taldeko buru izan zen **Sorkun** kantariak erakutsiko du, halaber, zergatik den XX mendeko euskal rockaren erreferentzia nagusietakoa.

Irailak 24, larunbata

Esne Beltza izango da kartel-burua, trikitixa eta musika estilo beltzagoak uztartuz. 50eko eta 60ko hamarkadetako usaina darion soulaz arduratuko da Madrilgo **The Clams**, erabat emakumezko osatutako taldea. **Dead Bronco** eta **The Great Barrier** bizkaitarren rock independentea eta **DJ Göo** nafarraren disko saioak itxiko dute musikaz beteriko bigarren jardunaldi hau.

Surfa

Sopelako Udalaren eta Euskal Herriko Surf Federazioaren arteko lankidetzari esker, **Euskadiko surf zirkuitorako baliogarria den bigarren txapelketa** egingo da Arriatera hondartzan. Lehiaketa hori, gainera, **Euskal Herriko Txapelketa** izango da *open* eta emakumezkoen mailan, bai eta *longboard*, SUP eta helduen mailetan ere.

EHSF-ko klubaren arteko txapelketa ere egingo da egunotan. Aurtengo ezaugarri nagusia: talde guztien kapitainak emakumezkoak izango dira.

Herriko lau surf-eskola arduratuko dira kirol honetan hastapenak egin nahi dituztenei **doako ikastaroak** emateaz, nahiz eta aintzat hartu behar den leku-kopuru mugatuak izango direla eta ezinbestekoa izango dela neska-mutilek 12 urte beteta izatea. Ikastaroak irailaren 24an eta 25ean eskainiko dira, 11:00etatik 13:00etara, Arriatera eta Atxabiribil hondartzetan.

Surfarekin eta naturarekin lotutako **laburmetraia saritu guztiak jendaurrean pantailaratuko dira**, jaialdiaren lehen jardunaldian egingo den gala berezian, ostegunean, irailaren 22an. Gainera, jaialdiko web-orri ofizialean ere ikusi ahal izango dira.

Natura

Surf eta parapente ikastaroak

Irailak 24-25. 11:00-15:00. Arriatera, Atxabiribil eta Barinatxe hondartzetan.

Beer Fest-a

Irailak 25. Uribe eskualdeko garagardo ekoizleek, beraien garagardo artisauak aurkeztuko dizkigute. Udaletxeko plazako karpan.

Tailer bereziak

Tipiak, umeentzako yoga, hawaiiar dantzak... Udaletxeko plazan.

hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2016ko irailaren 15etik irailaren 21era arte



hiruka.eus



Oxabi taldeak alaituko du zapatu honetako gaua, Urdulizko jailetan. © OXABI

URIBE KOSTA

Urdulizen eta Lutzanan dira jaiak aste-akabuan

Irailaren 7an bota zuten txupina udal-letxe bakoitik Urdulizko Andra Mari jaietako emateko; joan den domekara arte, auzokideek zein partidarazaleek hamaika aukera izan zuten egunak modu ezin hobean igarotzeko. Urtero legez, elizaren ondoko landan egon da jai-eremua eta txosnagunea, festen lehenengo aste-akabuan, kontzertuetarako

oholtzagaz batera. Ostera, bigarren asteburuan, hilaren 16tik 18ra, txosnagunea eta festen agerlekua Elortza auzora eroango dituzte. Hantxe egingo dituzte, besteak beste, Skate Xpression ekitaldia, bertso-desafioa, herri-martxa, herri-bazkaria, kick-boxing emanaldia eta moztorro-gaua. Bestalde, bariku honetan hasi eta

domekara arte, Lutzanako auzo eran-

dioztarren ere jaiak izango dira. Ohi legez, txupinagaz abiaraziko ditu festak 19:30ean. Ondoren, txorizo-jana eta mus-txapelketa egongo dira; eta Xaibor igoko da oholtzara, iluntzean. Zapatuan eta domekan, tripa betetzeko zein dantzan jarduteko aukera gehiago izango dituzte bertokoek zein Lutzanara hurbiltzen direnek. ◀

info+: hiruka.eus/bereziak/jaiak

SOPELA

Akabuko martxea eta Dominica dokumentalak ikusgai, eguenean

Artzainen zeregina akordura ekartzen duen *Akabuko martxea* dokumentala eskaimiko dute gaur, eguena, Kurtzio kultur etxean. Hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. Emanaldi berean, zortzi minutuko ikus-entzunezko *Dominica* lana ere proiektatuko dute, eta mahai-ingurua egongo da. Gonbidapenak ohiko lekuetan lor daitezke. ◀



URIBE KOSTA

Ekogune ikastaroetan izena eman daiteke, irailaren 30era arte

Ekogune ikastaroetan izena emateko epea zabalik dauka Uribe Kostako Mankomunitateak. Gainera, jardueretako batzuk euskaraz izango dira, berbarako: jaiarten hondakinak zein azalak aprobetxatzen ikastekoak, transgenikoen berbaldia eta haurrentzako sukaldaritza-eskolak. ◀

info+: www.uribekosta.eu

2016/09/16 - 16:00

Eskubaloia umeentzat

Elortza ikastetxea | Urduliz

Andra Mari jaiak. Urdulizko Eskubaloi Taldeagaz.

2016/09/16 - 18:00

IX. Skate Xpression

Goetas skate-pista | Urduliz

Andra Mari jaiak. Musikk alaituta.

2016/09/16 - 19:00

Monstruos de la Universal kaleko musika-banda

Altzaga | Erandio

Musikale jaialdia. Domekan, irailak 18, egingo dute kalejira Astrabuduan, 12:00etan.

2016/09/17 - 16:30

Umeentzako areto-futbola

Lutzana auzoa | Erandio

Lutzanako jaiak.

2016/09/17 - 18:30-20:30

Umeentzako dantzaldia

Lutzana auzoa | Erandio

Lutzanako jaiak. Mozorrotuta joan behariko dute denek. Akabuan emango dituzte moztorro onentzako sariak.

2016/09/17 - 20:00

Kick-boxing emanaldia

Iparralde kiroldegia | Urduliz

Andra Mari jaiak.

hiruka

Uribe Kostako astekaria



Gehigarri berezia

2016ko irailaren 15etik 30era arte

2016-17 ikasturtea, begibistan!

Hurrengo orrietan eskualdeko hainbat akademia, hizkuntza-eskola eta aisialdiko eskaintza zabala duzu; euskaltegiak, kiroldegiak, ikastaroak...

Aurten, zuk zer egingo duzu?



**Euskal Dantzak**
Adin guztietako taldeak, DOAN - GRATUITO!
5 urteik aurrera jubilatuetaraino - 5 años hasta jubilados

Musika Eskola
Trikitixa, Pandero, Alboka, Txistua, Txalaparta, Atabala
Egunek eta orduak norberaren nahiri egokituak - Horarios flexibles

 **MATRIKULA ZABALIK**
www.itxartu.com - ItxartuTaldeaKulturElkartea 

Gurekin parte hartu gura baduzu... 688.676.188 - 695.750.649 / itxartu.itxartu@gmail.com

 **LIBURU ETA PAPER DENDA**
ITXAS-IBUS
1960tik zurekin!

Torrene 2, ALGORTA. 944 911 427

Jose Antonio Agirre Euskaltegia

«Ikastaroak aukeran ematen ditugu, ikasleak dioenari kasu egiten diogu»

Ikasturte honetarako ikastaroetan izena emateko epea zabaldu berri du Jose Antonio Agirre euskaltegiak.

Algorta erdian dago kokatuta Jose Antonio Agirre euskaltegia. Amaia Torrealdea eta Nora Zugadi bertako lagunek azaldu digute euskara hobetzeko duten eskaintza zabala.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen ikastaroak?

Amaia Torrealdea: Batetik, nagusientzat, ikastaro desberdin asko ditugu: asteen 10 ordukoak, 6 ordukoak...; mintzamina gehiago lantzeko talde bereziak; lehenengo, bigarren eta hirugarren hizkuntza-eskakizunak prestatzekoak; goizez zein arrastiz, zapatu goizetan... Hastapen-taldeak ere baditugu, gutxi dakiten ikasleentzat eta hasiberriak direnentzat.

Nora Zugadi: Bestetik, ume eta gazteen euskaltegian eskaintzen duguna da eskolan lagundu ahal izatea, eskolan egiten duten lanaren errefortzu gisa; eta, batez ere, gaztetxoek ikustea euskara badela erabil daitezkeen hizkuntza bat: komunikazioa areagotuz eta bultzatuz. Modu ludikoago batean, agian, jolasen eta kanten bidez, antzerkiak eginez... beraiek ikus dezaten euskarak badaukala erabilera, ez dela bakarrik ariketak egitea eta liburu batean sartuta dagoen zerbait.

Aipatutako gaztetxoak zein adin tar-tekoak izan daitezke?



“Gaztetxoekin modu ludikoago batean aritzen gara, jolasen eta kanten bidez, antzerkiekin...”

N. Z.: Sei urtetik eta hamasei urtera arte, denak.

Nagusien kasuan, zein da erabiltzen duzuen metodologia?

A. T.: Metodologia, batez ere ekin-tza komunikatiboetan oinarritzen da. Ekintza komunikatibo horien bidez lantzen ditugu lau trebetasunak: irakurmena, idazmena, entzumena eta, batez ere, mintzamina. Bestalde, jen-

de askok hizkuntza-eskakizunak prestatzeko taldeak eskatzen ditu eta guk aukeran ematen ditugu; ikasleak esaten duenari kasu egiten diogu.

Zer moduko giroa izaten da?

A. T.: Uste dut oso giro ona egoten dela orokorrean; talde politak sortzen dira, edade desberdinekoak; Gabonetan adibidez ikasle baten txokora joaten gara, afaltzera... bai, giro ona dago!

N. Z.: Askotan gertatu zaigu: irakasleok ikasle guztiei informazioa pasatzeko-edo whatsapp-taldeak sortu ohi ditugula eta, ikasturtea bukatzean, irakasleok alde egiten dugu talde horietatik, baina taldeek jarraitu egiten dute, ikasleak bertan geratzen dira... Oso giro ona sortzen dela uste dut. ◀



Helbidea

Algortako etorbidea, 104.
48991 - Algorta (Getxo).

Harremanetarako

944 606 671
www.jagirre.net
j.a.agirre.euskalnet.net

Bulego-ordutegia

10:00-13:00 / 17:00-20:00

CURSO
2016
2017
IKASTURTEA

**MATRIKULA
ZABALIK**

**J.A. AGIRRE
EUSKALTEGIA**

Bulego ordutegia:
Horario de Oficina:
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

Algortako etorbidea, 104
48991 - Algorta (Getxo)

944 606 671
www.jagirre.net
j.a.agirre@euskalnet.net



TODOS LOS CURSOS
MAÑANA Y TARDE 2016-2017

MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES LOS SÁBADOS

AZTERKETA OFIZIAK PRESTATZEKO IKASTAROAK LARUNBATETAN

PARA ALUMNOS DE 6-16 AÑOS

6-16 URTEKO IKASLEENTZAT

ASTEAN 3 ORDU/ 3 HORAS SEMANALES
17:30-19:00

Lunes y miércoles o martes y jueves
Astelehenera eta ostegunera edo
astearte eta ostegunetan

Refuerzo de la asignatura, aprendizaje
lúdico, tiempo para preparar exámenes y
hacer los deberes.

Ikasgia sendotzeko, ikasketa
jostagarria, etxeko lanak egiteko
eta azterketak prestatzeko.

Bizkaiko Urtxintxa Eskola



Helbidea:
Zabalbide 26,
48006 - Bilbo

Telefonoa:
944 320 445

E-maila:
urtxintxa@
urtxintxaeskola.
eus

Webgunea:
www.
urtxintxaeskola.
eus

Geurera hurbildu!

Balioetan hezteko ikastaroak

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak 30 urte baino gehiago daroatza aisialdian trebatzeko aukera eskaintzen, metodologia parte-hartzaile eta kritikoa bermatuz.

Urtxintxa Eskolan ikasturte berrirako ikastaroak antolatu ditugu. 30 urte daromatxagu lan honetan eta aurten ere, bide beretik gatoz. Feminismoan, Haurren Parte Hartzean, Aniztasun Funtzionalean, Kulturarte-kotasunean, Euskaran, Aisialdian... trebatzeko aukera eskaintzen dugu. Urteak daroatxagu trebakuntza eskaintzen, edukiak oso finkatuak eta eguneratuak ditugu. Iraupen luzekoan artean, esaterako: Hezkidetzan Aditua, Aniztasun Funtzionala Aisialdian Aditua, Haurren Parte Hartzea edota Begirale zein Zuzendari ikastaroak; azken bi horiek Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulu ofizialak dira. Hainbat ikastaro labur ere baditugu

aukeran, Parte-hartzea ikuspegi feministatik, Zurrumurruak irauli!, Euskara-hizkuntza ohituren aldaketa... Lehenengoz eskaintzen ditugun ikastaroak dakartzagu aurten ere, Ludopedagogiaren ingurukoak edo Zeinu Hizkuntza eta jolasak lotzen dituztenak, berbarako. Tokiko elkarteekin batera egiten dugu sarri Aisialdi trebakuntza eskaintza; aurten Bizarra Lepoan Elkartearekin batera, Getxon, Begirale Ikastaroa eskainiko dugu. Horietan guztietan metodologia parte-hartzaile, hausnartzaile eta kritikoa erabiliz garatzen dugu trebakuntza. Hizlari adituak, koordinatzaile konprometituak eta ikasle aktiboak ditugu altxor. ◀

info. gehiago: www.urtxintxaeskola.eus

arteskola

HAURRAK ETA HELDUAK
NIÑOS Y ADULTOS

Adierazi
EXPRESAR

Sortu
CREAR

Ikasi
APRENDER

Ikertu
INVESTIGAR

Jolastu
JUGAR

Diseinatu
DISEÑAR

Komunikatu
COMUNICAR

...
ÓLEO | ACRÍLICO | TÉMPERA | ACUARELA
LÁPIZ | PASTEL | CARBONCILLO | CONTÉ...
¡DESCUBRE TU TÉCNICA!

MATRÍCULA GRATUITA

CURSO
16/17
Ikasturtea

MATRIKULA DOAN

25 ANIVERSARIO
arteskola
25. URTEURARENA

ACADEMIA DE DIBUJO Y PINTURA DESDE 1991
1991-TIK MARRAZKETA ETA MARGOLARITZA AKADEMIA
ALGORTA • WWW.ARTESKOLA.NET • 666 92 19 19 • 1

Aisialdiko begirale

Getxo • Hego Uribe • Bilbo



Gainera Bilbon:

- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezkidetzan aditua
- Feminismoan sakontzen
- Haurren parte-hartzean murgiltzen
- Aniztasun funtzionala aisialdian aditua
- Kulturarteko hezkuntzaren hastapenak

+IKASTARO LABURRAK



MATRIKULA IRAILAREN 1ETIK 30ERA

www.urtxintxaeskola.eus
urtxintxa@urtxintxaeskola.eus
94 432 04 45
Zabalbide 26, behe 48006 Bilbo.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

CURSO 2016-17 IKASTURTEA

MAILA GUZTIAK: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2



**ERA
BILI
EUS
KA
RA**

TRINKOAK
(intensivos)

EGUNEROKO TALDEAK
(todos los días)

EUSKARAZKO TAILERRAK
(2-3 días a la semana)

JARDUN BIKOAK
(módulos mixtos: presencial y auto-aprendizaje)

MINTZA-PRAKTIKA
(B2-C1)

DENDAKETAN
(comerciantes y hosteleros)

AUTOIKASKUNTZA
(auto-aprendizaje: tutorías y on-line)

AURREMATRIKULA IRAILAREN 26RA ARTE
PREMATRÍCULA: hasta el 26 de septiembre

LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)
Tfnoa: 94 464 62 99
Emaila: euskaltegia@getxo.eus



Soinu Musika Eskola



Helbidea:
Telletxe, 34
48993 - Algorta

Telefonoak:
944 607 955
688 630 146

Webgunea:
soinumusika
eskola.com

Musika gozatzuz

Algortatik irten behar barik

Soinu Musika Eskolak 28 urteko eskarmentua dauka musikaz gozarazten. Zazpi gelatan, musikarekiko grina transmititzen dute, gura den instrumentuan.

Algortatik Galeara joateko bidean, Borobia plazaren aurretik eskumara eginez gero, «Soinu Musika Eskola» marrazten duen karteltxoak ikusiko dugu. Horkoa leku magikoa da, argiz eta bibrazio onez bete. Seguru asko, eskola kudeatzen duten pertsona biak sutsuak, ausartak, baikorrak eta gogotsuak direlako, musika-ezagutza irakasteko eta zabaltzeko bada.

Soinu Musika Eskola 1988an zabaldu eta homologatu zuten; horrela lortu zuten ikasleek epaimahai arrotz baten aurrean azterketa egiteko trantze latza pasatu behar ez izatea. Zentroko arduradunek diotenez, «urte batzuk geroago konturatu ginen jendeak musikara hurbiltzeko zerabilen modua

aldatu egin dela. Gaur egun, musikaz gozatzea bilatzen da», azaldu dute, «ikasteko sufritu barik». Ikasleek «gogoko duten kanta ezagunen bat jotzeko musika-tresna» gura dute.

Halere, aitortzen dutenez, «gaur egungo musika, aurretik izan ziren maisu handiei zor diegu. Horregatik, Chopin, Bach, Beethoven edo Bartók bezalako egileen obrak lantzeari ez diegu inoiz utziko; The Beatles, The Rolling Stones edo gaur egungo egileen lanez gozatzeagaz batera». Soinu eskolaren ezaugarri nagusiak konfiantza eta gertutasuna dira: «ikasleek, umeek, baita helduek ere, eguneroko bizitzan izan ditzaketan egoera ezberdinak kontuan hartzen ditugu. Ikasle bakoitza berezia da guretzat». ◀

S O I N U

musika eskola

Eusko Jaurlaritzak baimendua

Telletxe Kalea 34 · 48993 ALGORTA
944 607 955 · 688 630 146
soinu_me@yahoo.es · soinumusikaeskola.com

Heziketa sortzailea eta jolasa, ardatz

Ikasteko eta parte hartzeko gune irekia da Laboragunea. 2016-17 ikasturtearen hasierari dagokionez, gazteei eta nagusiei begirako hamaika ikastaro antolatuko dituzte.



Gazteei eta nagusiei zuzenduriko heziketa-mintegia.

Etxean, eskolan, lanean, ka-
lean... bizitzan, egunero ha-
maika egoerari aurre egin
behar diogu; horrenbestez,
harremanek, lekuek, sinesmenek, ba-
liabideek eta abarrek eragina dute
gure egunerokoan. Gure ahalmenak
garatzeko, desio duguna lortzeko eta
gure mugak kudeatzen ikasteko lagun
diezagukete, edo oztopo izan daitezke.

Hala, norberaren ikaste-prozesuak
dakarren askatasuna eta erantzukizu-
na geure eginez gero, burujabe haz-
teko gai izango gara. Autonomia hori
apurka-apurka garatuko da, bestee-
kiko harremanetan egokituz, eta era-

bakiak hartzen lagunduko digu, bai
besteekin konpartitzen ditugun gune
eta eginbeharretan, baita norberaren
gune propioetan ere.

Hazte-prozesu horietan laguntzen
duen pertsonaren jarrerak hainbat
ezaugarri izan beharko ditu: konfian-
tza, errespetua eta entzutea (norbere
buruari eta besteei). Horiek guztiak,
ikasi eta praktikatu ahal ditugu. La-
boragunetik, ikaste-prozesurako bal-
dintza osasuntsuak eskaini, ikertu eta
partekatu nahi ditugu, urte askotako
esperientzian ikasi duguna zabaltze-
ko helburuarekin. Munduari begira-
tzeko gure ikuspuntua erakutsi nahi

diegu hezkuntza-prozesuan interesa
duten gazteei eta nagusiei. Jaioberrari,
guraso izan berri direnei edo hazten
dabilen komunitateari laguntza emate-
n diegunok pertsonen ahalmenean
konfiantza berreskuratu beharko ge-
nukeela uste dugu, baita gure gune
eta harreman estiloek buruz hausnar-
tu ere; hala, maila pertsonalean zein
kolektiboan haztea posible izango da,
era osasuntsu eta jasangarri batean.

Ikastaroak, topaketak, tailerrak

Laboragunetik hainbat ikastaro, to-
paketa eta tailer abian ipiniko ditu-
gu 2016-17 ikasturte hasiera honetan;

Heziketa-mintegiak

- 2016ko abendua - 2017ko maiatza
- Aurkezpenak eta elkarrizketak, hezkuntzaz eta bestelakoez.

Laboragunea Ikasgunea, monografikoa

- Abenduak 17-18 eta martxoak 18-19.

Ikastaro trinkoa, 2017ko ekaina

- Ekainak 29-30 eta uztailak 1-2.

Ikastaroak eta tailerrak

• Miren Alaña eta Thomas Gordon Fundazioa

- PET (gurasoak): urriak 1-2 eta 8-9
- MET (hezitzaileak): urriak 21, 22 eta 23; azaroak 4, 5 eta 6

• Solasgunea

- Haurren hiria: otsailak 18 eta 19
- Komunitatea ikaste-ingurunean.

• Imagine Elephants. Julian Maguna eta Elena Cruces

- Jolasteko mintegia, apirilak 21, 22 eta 23.

• AtEskola

- 2017ko urtarrila.

mintegiak hilean behin, monografi-
koak eta 5 egunetako ikastaro trinkoa
eskainiko ditugu, besteak beste.

Gure trebakuntza-eskaintza zaba-
lean, egoera zehatz bati eta pertsona ba-
koitzari egoki erantzuteko garrantziari
buruz aritzen gara, entzuteko prest da-
goenaren malgutasunaz, eta konfian-
taz ari denaren ziurtasunaz. Kontuan
hartuta trebakuntza dela ez dakigun
horri erantzuten dioten esperientzien
eta ezagutzen batura, eta, ahaztu gabe,
dagoeneko badakiguna ere erabilgarria
eta lagungarria dela, bai guretzat, baita
besteentzat ere euren jardunean.

info. gehiago: laboragunea.com

Laboragunea

Ikaskuntza eta Heziketa Sortzailea



Ikasgunea - Tailerrak - Ikastaroak - Gune irekiak

Iturriondo 10 - 2. solairuan (Leioako Metro Geltokitik gertu) - 645 999 877 - laboragunea@gmail.com

Erandioko Udal Euskaltegia

MATRIKULA ZABALIK

Izena emateko epea: Irailaren 5etik 23ra

Euskalduntze eta alfabetatzea
A1, A2, B1, B2 eta C1 agiriak
Hizkuntza Eskakizunak
Ordutegi guztiak
Euskara Zerbitzuaren beka eta diru-laguntzak
Ekitaldiak euskaraz
BOGA, Internet bidezko irakaskuntza
Xede berezietako taldeentzako eskolak

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK



Desanexio kalea, 4 - 3.a (Bekoa ikastetxea)

944 676 075 - euskaltegia@erandio.eus

www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

www.udaleuskaltegiak.eus



94 612 16 98
aldapa, 3 algorta
www.hireondooan.eus



PEDAGOGIA

Asteleheneretik barikura
9:00-13:00 / 16:00-20:00

iranzu arroitajauregi gutierrez
pedagogia lizentziadun



hamilton

IDIOMAS

MATRIKULA ZABALIK!

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.

946 763 012

info@hamiltonidiomas.com

PAUSOZ PAUSO
EUSKALDUN
MASTITXU EUSKALTEGIA

MASTITXU EUSKALTEGIA
Izarralegi etorbidea, 78
48948 - IZARRA
www.euskaltegiak.com
t 94 464 00 02
Faxo 94 480 25 80

Aurrematricula/Prematricula
Irailaren 1otik 20ra del 1 al 20 de setiembre

Euskara ikasteko
Diru-laguntza
Jarduerako aukera

Partenarietate de parte
BECAS
para el aprendizaje del euskara

MASTITXU EUSKALTEGIA
ETXETIK GERTU
A UN PASO DE TU CASA

ARZO-GELAN
EL EUSKARA EN TU BARRO

ESKUTIK HELDUTA
PAUSOZ PAUSO
DE LA MANO HACIA EL EUSKERA

Gurasoentzako taldeak
grupos para padres-madres

MASTITXU EUSKALTEGIA
ERANTZUIOZU
EUSKARAZ

DISELO EN EUSKERA
MASTITXU EUSKALTEGIA

Merkatarientzako taldeak
grupos para comerciantes

Spik Hizkuntza Laborategia



Anima zaitez!

Eragiozu zure Englishari

Hizkuntzak ikastea orainari eta etorkizunari begiratzea da. SPIKen norberaren neurrirako aukerak daude, ahalik eta erosoan, ikas zentrotik atera gabe.

Denbora falta ezin da hizkuntzetan ez murgiltzeko «aitzakia» izan. Hizkuntzak ezagutzeak gero eta garrantzi handiago dauka; izan ere, hizkuntzek aberastu egiten gaituzte, beste kultura batzuk ulertzen laguntzen digute, eta, jakina, besteekiko harremana errazten digute.

SPIK EHUko Hizkuntza Laborategia 2011n sortu zen, hizkuntza eskola zerbitzuak emateko Bizkaiko Campusean matrikulatzen den ikasle orori, bertako irakasleei edota langileei, hau da, oro har, Unibertsitatea osatzen duen komunitate osoari.

ULIBARRI S. COOP. euskaltegiarekin batera, ingelesa eta euskara eskaintzen ditu, ahalik eta modurik ero-

soenean: ikasleak ikasketa zentrotik aterarazi gabe.

Hizkuntzak ikasi, zertarako? Bidaizteko, gure artean dabilzan kanpotarrei laguntzeko, informazio-iturri gehiagotara heltzeko, eguneroko jardueretan jantziago aritzeko, titulu ofizialak lortzeko, atzerrian ikasi ahal izateko, lan baten aurrean prestatuago agertzeko, eskolaz kanpoko aurkezpenetan, mintegietan zein konbentzioetan eroso aritzeko, irudi ona emateko... Daukazu helburua daukazula, SPIK zuretzat eta zurekin dago. Jatorrizko irakasleak eta eskarmentu handiko profesionalak daukagu, eta gidari izango dituzu ikasketaren prozesu osoan. ◀

info+: 946 018 184 edo info@nikspik.net

astialdiko begirale ikastaroa

Begirale ikastaroa:

2016ko urritik 2017ko maiatzera arteko zenbait asteburutan egingo da.

Prezioa: 450 euro.

Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulazio ofiziala emango da.

Matrikulazio data:

Irailaren 21etik 30era Bizarra Lepoan euskara elkartearen bulegoan.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta astearte + ostegunetan 16:30etik 18:00etara.

Ekarri beharrekoa:

NAN fotokopia, argazki bat eta ordainagiria bulegora ekarri behar dira

BBK 2095 0019 50 9102257479 kontu korrontean ingresoa egin ostean.

Helbidea:

Martikoena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa
48992 Algorta
944 910 387 | info@bizarralepoan.eus.

Info+: www.bizarralepoan.eus



aek euskara
praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena
Matricúlate



Uribe Kostako AEK

Euskara eskolak · Clases de euskera
Ordutegi zabalak, A1-A2-B1-B2-C1-C2 · Todos los horarios y niveles: A1-A2-B1-B2-C1-C2
Autoikaskuntza, on-line ikastaroak · Autoaprendizaje, cursos on-line
Eskaintza bereziak · Cursos específicos
AISA, dendariak, guraso taldeak...

Matrikula zabalik iraila osoan · Matrícula abierta todo septiembre
Izen ematea · Apuntarse en:
Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

<http://www.aek.eus/blogak/uribekosta> · www.facebook.eus/uribekostako.aek

DIRU-LAGUNTZAK / BECAS

Udal guztietan

URIBE KOSTA

Aste honetan ere, Euskeraz Olgetan

Irailaren 15etik 18ra, *Munstroak eta ka-trinak* jarduera izango dute txikiak, Plentziako Astillero, Urdulizko Antso-nekoa, Gortizko Ibarreta eta Sopolako Iberrota plazetan; Armintzan ere bai. [info+ www.uribekosta.eu](http://www.uribekosta.eu)

ERANDIO

Kirol-jolasak euskaraz, Lutxanako jaietan

Erandioko gainontzeko jaietan egin legez, Lutxanan ere Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasetan parte hartzeko aukera izango dute gurasoek eta neska-mutilek. Zapatuan, irailaren 17an, ipini dute hitzordua, 12:00etan. ◀

SOPELA

Sopela Kosta Fest, abiatzeko prest

Artisau-garagardoaren dastaketagaz eta mahai-inguruagaz hasiko da Sopela Kosta Fest jaialdia, irailaren 22an; saioa 18:00etan izango da, udaletxeko sarre-ran. Ostean, film laburren lehiaketan saritutako lanak emango dituzte. ◀



HODEI MAGOA

Magia-ikusbizuna, Plentzian

Gortizko eta Plentziako Udalek martxan ipinitako Euskara Agenda bateratuaren barruan, *Ilusioaren indarra* ikuskizuna eskainiko du Hodei magoak. Ordubetez, agerpenakaz eta desagertzenakaz, eskapismoagaz eta ezinezko asmaizunakaz gozatzeko aukera edukiko dute ikusleek. ◀

Noiz: Irailak 17, zepatua.
Ordua: 18:30
Non: Goñi Portat Kultur etxea.
Sarrera: Doan.

2016/09/16 - 19:00

The Derty Gerties kaleko musika-banda

Astrabudua | Erandio
Musikale jaialdia. Domekan, irailak 18, egingo dute kalejira Altzagan, 12:00etan.

2016/09/16 - 20:00

Berto-desafioa

Txiberri taberna | Urduliz
Andra Mari jaiak. Iretargi Kultur Elkarteak antolatuta. Olhana Bartra eta Agin Laburu bertsolariakaz. Tabernaz taberna joango dira.

2016/09/16 - 20:30

Disko-festa Xaiborregaz

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak.

2016/09/16 - 23:00

Tight Leash eta Talky Big Band musika-taldeak

Elortza auzoa | Urduliz
Andra Mari jaiak.

2016/09/17 - 08:00

Herri-martxa (izen-ematea)

Udaletxeko plaza | Urduliz
Andra Mari jaiak. Helduak 09:00etan abiatuko dira eta umeak 10:00etan.

2016/09/17 - 11:00-14:30

III. Ur Jaialdia

Arriluze eta kirol-portua | Algorta
Kirol-eskolak eta umeentzako ekintzak.
Izen-ematea: getxoaktibatut@getxo.net.

2016/09/17 - 12:00

Radiophonic West Band eta Bokale Brass Band

Altzaga | Erandio
Musikale jaialdia. Arrastian egingo dute kalejira Astrabuduan, 07:00etan.

2016/09/17 - 12:00

La Parrus eta Pistons Flingueus musika-bandak

Astrabudua | Erandio
Musikale jaialdia. Arrastian egingo dute kalejira Altzagan, 07:00etan.

2016/09/17 - 12:00

Tortilla-txapelketa

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak. Tortillek 14:30erako egon behar dute; orduan banatuko dituzte sariak.

2016/09/17 - 22:30

Dantzaldia Hotza taldeagaz

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak.

2016/09/17 - 23:00

Mozorro-gaua

Elortzako txosna-gunea | Urduliz
Andra Mari jaiak. Ezkontza-jaiak egingo dute Eregu eta Huicidas taldeakaz.

2016/09/17 - 24:00

Dantzaldia Oxabi taldeagaz

Elortzako txosna-gunea | Urduliz
Andra Mari jaiak.

2016/09/18 - 10:00

Indaba-txapelketa

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak. Putxeragaz edo putxera barrik egin daitezke. Lapikoak 14:30ean aurkeztu behariko dituzte parte-hartzaileek; ondoren banatuko dituzte sariak.

2016/09/18 - 11:00

Lasterketa nudista

Barinatxe hondartza | Getxo eta Sopela
Proba-lehiakorra (5 kilometro) eta oroi-lasterketa (1 kilometro) egongo dira. Egunean bertan izena eman daiteke, doan.

2016/09/18 - 11:00

Gurpil gaineko taupadak

Zipiriñe ikastetxea | Sopela
Bide-hezkuntza zirkuitua, ginkana eta triaflin-erakusketa egongo dira, doan.

2016/09/18 - 12:00

Erandioko Musika Banda

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak.

2016/09/18 - 13:00

Mendibaiarte abesbatza

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak.

2016/09/18 - 15:30

Postre-txapelketa

Lutxana auzoa | Erandio
Lutxanako jaiak.

2016/09/18 - 18:00

Zumba eta tangoa

Iparralde kiroldegia | Urduliz
Andra Mari jaiak. Erakustaldi horiekaz amaituko dira festak.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan eta eskualdean antolatutako dituzten ekitaldien berri emateko, kanal berezia duzue hiruka.eus-en





Testuek oinarri dituzten 10 argazkiek eta epaimahaiak aukeratutako 40 idatziek osatuko dute V. ArgIHizkiak Erakusketa.

Irabazleak

16-18 urte

Testu labur-labur onena:

- Itxaso Zabala Mondina (Gorliz, 2000), Eider Moreno Carreroren argazkian oinarrituta.

Testu labur onena:

- Irati Ortueta Uriarte (Algorta, 1999), Naiara Elorriaga Lumbresaren argazkian oinarrituta.

18 urtetik gora

Testu labur-labur onena:

- Mikel Iturriotz Etxaniz (Urrtxu, 1995), Maite Mentxaka Tenaren argazkian oinarrituta.

Testu labur onena:

- Aintzane Arrieta Gandiaga, (Aulesti, 1967), Eider Moreno Carreroren argazkian oinarrituta.

Sariak eta erakusketa

Urriak 13, eguena

19:30 Algortako Torreare aretoa. Erakusketa bertan egongo da urriaren 30era arte.

Argazkiak berba bihurtuz

ArgIHizkiak lehiaketaren irabazleak aukeratu ditu epaimahaiak; urriaren 13an izango da sari-banaketa.

ArgIHizkiak lehiaketaren bosgarren edizioan parte hartu duten guztien artean 40 onenak aukeratu dituzte daborduko aurtengo epaimahaikideek. Hala, testuek oinarri dituzten 10

argazkiek eta 40 idatzi horiek osatuko dute V. ArgIHizkiak Erakusketa.

Guztira, 212 testu helarazi dituzte 32 herritako parte-hartzaileek. Aukeratutako testu onenen artean, lauk sari berezi bana jasoko dute: gazteen

mailan (16-18 urte), testu labur onenaren egileak eta testu labur-labur onenaren idazleak *libbuk* liburu elektronikoko bana jasoko dute (Elkar Taldearen laguntzaz); 18 urtetik gorakoetan mailan, 200 euro jasoko ditu bai testu labur-labur onena idatzi duenak bai testu labur onenaren sortzaileak.

Erakusketaren aurkezpen-ekitaldia eta sarien banaketa urriaren 13an,

19:30ean izango da, Algortako Torreare aretoan. Argazkiak eta testuak urriaren 13tik 30era ikusi ahal izango dira bertan; ostean, Uribe Kostako beste udalerrri batzuetan egongo da erakusketa. Gainera, bosgarren urteurrena ospatzeko, atzerabegirakoa ere egongo da Torrearen. Horretan, aurreko lau ekitaldietako hainbat argazki eta testu egongo dira ikusgai. ◀

Hitza emanda



Oporrak

Iraila iritsita badatoz problemak, errutinan murgildu zaizkigu barrenak... Nahiz freskatu gaituen udan atsedanak, oporrak dira hegan pasatzen direnak!



PAULE LOIZAGA LEGARRA
Bertsolari sopolotarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Bosteko 2016 esposizioa, Leioan eta Algortan

Bosteko 2016 erakusketa ibiltariaren hemeretzigarren edizioa inauguratu zuten irailaren 7an Basauriko Arizko dorretxean; urriaren 1era arte egongo da ikusgai bertan. Aurtun, Kultur Leioan (urriaren 3tik 23ra) eta Algortako Torreare aretoan (abenduaren 3tik 30era) egingo ditu geldialdiak, besteak beste. Horrez gainera, Algortako Portu Zaharrean hainbat urtez bizi izandako Laurita Siles (Marbella, 1981) artista andaluziarra aukeratu dute aurtengo ediziorako; Leire Urbeltz (Iruñea, 1985) eta David Hornback (Los Angeles, 1962) sortzaileen lanak ere erakutsiko dituzte.

Deserriratuena bidaia da Bosteko 2016 talde-erakusketaren izenburua; «jendeari helmuga barik, ihes egiteari buruz gogoeta eginaraztea da erakusketaren asmoa», Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saileko arduradunek adierazi dutenez. Izan ere, euren berbetan, «horixe da Europako mugetan

Egitaraua

Basauri

Urriaren 1era arte, Arizko Dorretxean.

Leioa

Urriaren 3tik 23ra, Kultur Leioan.

Arrigorriaga

Urriaren 24tik azaroaren 11ra, Euskaldun-berria erakusketa-aretoan.

Zornotza

Azaroaren 14tik abenduaren 7ra, Zelaietan.

Getxo

Abenduaren 3tik 30era, Algortako Torreare kaleko erakusketa-aretoan.

pilatuta dauden milaka errefuxiatuen egoera». Aukeratutako hiru artistek askotariko lanak egin dituzte gai berberaren inguruan, eta hainbat teknika erabili dituzte: paper gaineko collagea, bideoak eta argazkiak. ◀

Plentziako Esaera Zaharren Txapelketan izena eman daiteke irailaren 20ra arte

Plentziako atsotitzen jaialdian parte hartzen duten taldeek 60 esera zahar ezagutu eta buruz ikasi behar izango dituzte; *Zazpi, ezkabiltza gaizki* goiburuagaz, irailaren 24an izango da sariketa. Aipatutako egunean, parte-hartzaile, musikari eta gura duten denak batuko dira Eleiz plazan, goizeko 11:00etan. Horren ostean, poteoa hasiko dute kalez kale, hainbat ibilbide-tan banatuta. Hala, parte hartuko duen talde bakoitzak bertsoan kontatzen den egoeragaz lotutako esaera zaharra zein den igarri beharko du. Puntu gehien batzen dituzten taldeek final-laurrekoa jokatuko dute bazkalostean, Danontzat gaztetxean. Han, Sustrai Colina eta Oihana Bartra bertsolariak batbeteo bertsoak kantatuko dituzte, eta esaera zaharra zein den igarri beharko dute taldeek, aurreko zatian legez. Finallean puntu gehien lortuko dituenak irabaziko du sariketa. ◀

info+: esaerazaharrakplentzian@gmail.com

Irailaren 19tik 25era Euskal Astea egingo du Trabudu Dantzari Taldeak, bigarrenez

Trabudu Dantzari Taldea 40. urteurrena ospatzen dabil aurten; ekainean egin legez, irailaren akabuan ere Euskal Astea egingo dute Astrabuduan. Hala, hilaren 19tik 25era, Trabuduren historia lau haizetara zabaldu gura dute. Astelehenetik barikura argazkien erakusketa egongo da, Josu Murueta kultur etxeko erakusketa-aretoa; irudiak kalera aterako dituzte, Jose Andres Mendiguren plazara, aste-akabu horretan.

Horrez gainera, irailaren 24an, zapatua, haurrentzako jolasak (11:00) egongo dira, Jose Andres Mendiguren plazan; eta 12:30ean triki-poteoa egingo dute. Arrastian, berriz, Astrabuduko futbol zelaietan dantzatzeko dute. Guztira, 300 lagun inguru batzea espero dute; izan ere, 40 urte hauetan Trabuduko kide izandakoek osatutako nesken zazpi taldek eta mutilen beste hamarren batek dantzatzeko lortu gura dute. Lehenengo, kalejira (18:30) egingo dute, Inazio Aldekoa ikastetxetik, eta, gero, dantzaldia (19:00); afariaren ostean, berriz, Garilak 26 erromeria-taldeak joko du, gaueko 11:00etan, Mendiguren plazan. Amaitzeko, domekan, Euskal Azoka eta Euskal Ezkontza (11:00), herri-bazkaria (15:00) eta Patxi eta Konpainiaren erromeria antolatu dituzte. ◀

Kilometroak ikastolen jaira joateko autobusak antolatu dituzte Gorliz, Plentzian eta Sopelan

Kilometroak jaia Bergaran egingo da aurten, urriaren 2an, domeka, *Demasa* goiburuagaz. Hala, bertara joateko autobusa antolatu dute Gorliz eta Plentzian. Irailaren 27ra arte, udalerriotako kultur etxeetan izango dute izena emateko aukera Gipuzkoako ikastolen jaietan parte hartu gura dutenek; gorliztarrek zein plentziarrek 5 euro ordaindu beharko dute, eta, 8 euro, kanpotarrek. Autobusa 09:00etan irtengo da Gorlizko Laboral Kutxatik, ondoko herrietako lagunak Plentziako Charteurrean hartzeko; 20:00ak aldera egongo dira bueltan. Sopeloztarrek ere Kilometroak festara joateko autobusa izango dute; San Pedro elizatik abiatuko dira 09:30ean, eta bost minutu beranduago egingo dute geldialdia Larrabasterako Urgitxietan. Irailaren 28ra arte egongo da izena emateko aukera, Kurtzion, udaletxean eta Sopelaren bulegoan; Sopelan ere, prezioak berberak izango dira. ◀



Monstruos de la Universal taldeak zabalduko du aurtengo Musikalean jaialdia. © ERANDIOKO UDALA

Musika, kaleen jabe, Erandion

Musikale jaialdiak 16 urte beteko ditu aurten; aste-akabu honetan, goizean zein arrastian, kalerik kale ibiliko dira musika-bandak, Altzagan eta Astrabudun.

Jatorri eta herrialde oso ezberdinetatik heldutako musika-bandak entzungai egongo dira irailaren 16tik 18ra Altzagan eta Astrabudun. Izan ere, Leioa, Basauri eta Sestaoko udalek ez bezala, Musikaleri eustea erabaki zuten 2013an Erandioko agintariek; jaialdiak 16 urte beteko ditu aurten. Hala ere, ordutik, hamabi beharrez, sei taldek baino ez dute jotzen Altzagan eta Astrabudun. Barikua arrastian (07:00etan), zapatu osoan (12:00etan eta 19:00etan) eta domeka eguerdian (12:00etan) kaleak musikaz beteko dituzte bandek, bi auzoetan aldi berean. Ondokoak dira Erandiora hurreratuko diren taldeak: Monstruos de la Universal, The Derty Gerties, Radiophonic West Band, La Parrus, Pistons Flingueurs eta Bokale Brass Band. Aipatutako azkenengo musika-banda horrek New Orleans-eko doinuak ekarriko ditu gurera. ◀

Emanaldiak

Irailak 16, barikua

Altzaga

19:00 Monstruos de la Universal.

Astrabudua

19:00 The Derty Gerties (Errioxa, Espainia).

Irailak 17, zapatua

Altzaga

12:00 Radiophonic West Band (Frantzia) eta Bokale Brass Band (New Orleans, AEB).

19:00 La Parrus (Valladolid, Espainia) eta Pistons Flingueurs (Toulouse, Frantzia).

Astrabudua

12:00 La Parrus (Valladolid, Espainia) eta Pistons Flingueurs (Toulouse, Frantzia).

19:00 Radiophonic West Band (Frantzia) eta Bokale Brass Band (New Orleans, AEB).

Irailak 18, domeka

Altzaga

12:00 The Derty Gerties (Errioxa, Espainia).

Astrabudua

12:00 Monstruos de la Universal.

Euskarazko yoga-ikastaroa prest dauka Egizu taldeak, daborduko

Ikasturte hasieragaz batera, aurten ere yoga-eskolak euskaraz emango ditu Hasier Rekondo irakasleak, Algortako San Nikolas ikastolako Haur Hezkuntzako lonjan. Egizu elkarteak antolatzen duen ikastaroa hasiberriei zein maila erdikoei bideratuta dago. Lehenengo saioa urrian izango da eta irail osoan izena emateko aukera edukiko dute parte hartu gura dutenek. Yo-

ga-eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 19:30etatik 21:00etara. Berbalagunek, Ortuetoako kideek, Bizarra Lepoaneko bazkideek eta San Nikolas ikastolakoek 27 euro ordainduko dituzte hilean, eta 33 euro gainontzekoek. Euskara-taldeko arduradunek argitu dutenez, beharrezkoa izango da estera eta manta bat eroatea. ◀

izen-ematea: 619 935 541 / egizugetxo@gmail.com



Itsasertzetik

GUILLERMO MALAINA MARTINEZ
Irakaslea

Gazteengandik ere zer ikasi badago

Gaur egungo gazteak ez dira lehengoak bezalakoak. Noizbehinka adineko jendeari entzuten diot esaldi hau, maiz kritikaren kutsu batez. Ez dakit zerk eragiten duen kexa (norberaren barneko malenkoniak, iragane-ko minak, pertsonak alderatzeko joerak, garaikideekiko hurbiltasunak, belaunaldien arteko urruntasunak...), baina kontua da geure gizartean kritika hau sustraiturik dagoela.

Hainbat testuingurutan eta garaitan entzun da. Nik neuk entzuten nuen esaldi hori gaztea nintzanean, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, ile urdina zuen baten baino gehiagoren ahotik. Urteak joan eta urteak etorri, berritua ere aditza Erandioko jailetan egokitu zitzaidan, joan den abuztuaren. «Gaur egungo gazteak ez dira lehengoak bezalakoak», bota zuen tupustean barra ondoan zegoen berrogeita hamar-ka urteko gizon batek. Auskalo harrotasunez ala harrokeriaz harrotu ote zen gizona kokotsa goratuz, baina, edonola ere, esanak bere kuadrillaren onspena jaso zuen.

Onspena onspen, esaldi horren atzean belaunaldien arteko ezberdintasunak bilatzeko eta azpimarratzeko joera dago, gure gizartean berdintasun itzelak egon badaude ere. Erandioko gazteriak, hain zuzen, horietan frogatu zituen herriko jaietan. Identifikatuta sentitu nintzen gure gazteekin, beraiek ikusiz hainbat ekintzetan: herriko bazkarietan, buruhandien irteeretan, gaueko berbenetan edota kuadrillen jaitsieran. Azken honetan, gainera, xelebrea izan zen ene lagun baten esana, gay eta lesbianen bandera harrotasunez eta irribarrez zeraman kuadrilla bat ikusita: «Geure garaian ez zen hau Erandion ikusten, ez horixe!», xuxurlatu zidan. Gero liluraz karrozari begira geratu ginen, harro geure gazteekin. ◀

IZAKINEN AMAIERAKU MERKATUA MERCADO DE SALDOS

IRAILAK
SEPTIEMBRE 22-23-24

Nota: Si llueve, el mercado se prolongará los días 26 y 27

Oharra: Euria eginez gero, azoka 26ra eta 27ra luzatuko litzateke



Getxo
bizi ezazu



Parte-hartzaileak / participantes
www.getxo.eus/getxolan





Getxoko X. Milia

Probak ehunka kirolzale batu ohi ditu. © ITXARTU

Hamargarrenez, Getxoko Milia jokatuko da zapatu honetan, hilak 17. Algortako Telletxe plazak eta kaleak osatuko dute lasterketa horren zirkuitua.

Itxartu kultura- eta kirol-elkarteak eta Getxoko Atletismo Taldeak antolatuko dute proba, Getxoko Udaren laguntzagaz. Getxoko Milia iraupen laburreko herri-lasterketa da; mistoa da eta gizonezko zein emakumezkoen maila denentzat antolatzen da, txiki eta umeen mailetatik seniorretara, federatuak zein ez federatuak

barne. Lasterketa goizeko 11:40tik aurrera hasiko da; kategoriak txandaka aterako dira, txikienetik hasita eta gizonezkoen elite mailakoak amaitu arte, 13:00etan. Parte-hartzaileek, behe-mailetakoa izan ezik, hau da, kadeteetatik federatuetara, lau itzuli eta erdi eman beharko dituzte Telletxe plaza eta kalean kokatutako zir-

kuituan; denera, 1.609 metro (itzuli bakoitzak 353 metro ditu). Irteera Telletxe kaleko errepidean egongo da, Bizkaibusen geralekuan. Helmuga, ostera, Telletxe plazan egongo da, metro-geltokiaren aurrean.

Getxoko Milia 1987an antolatu zen lehenengo aldiz. Etenaldi luze baten ostean, bigarren edizioa 2008an jokatzen zen, «atletismoaren jardura sustatzea» eta «kirol-ikuskizuna eskaintzea» helburu. Hala, aurten hamargarren ediziora helduko da lasterketa eta, datorren urtean, 30 urte beteko ditu lehe-

nengoz egin zenetik. Antolatzaileek sari bereziak emango dituzte lasterketaren markak gainditzeagatik. Lasterketa dela-eta, Udaltzaingoa zirkulazioan hainbat aldaketa egingo ditu.

Izen-ematea

Milian parte hartzea doakoa da; interesdunek hainbat datu eman beharko dituzte Kantxa Kirol Modan (Torrene kalea), Gaztañaga Kirolak-en (Amezti kalea) edo Internetez. Epemuga egue-na izango da, hilak 15. ◀

izen-ematea: itxartu.com

arrakasta izatea



eta arrastaka ibiltzea



desberdinak direla ez badakizu, hobetu zeure euskara. Matrikulatu Getxoko euskaltegietan. Behar duzun informazio guztia hemen aurkituko duzu: www.getxo.eus/euskara



Idien heriotzengatik, kontu eske



Azken urteotan, idi-probak antolatzeari uzteko eskatu dute talde animalistek. © JOSU ASTRAIN

O rain dela urte bi, idi bi hil ziren Erandiogoikoan, Andra Mari jaietako idi-proba jokatzen zuten bitartean. Bizkaiko Foru Aldundiak nekropsiak egin zizkien animalien hilotzei eta «anfeta-minakaz dopatzeagatik hil zirela» ondorioztatu zuen.

Horren harira, zigor-espeditentea zabaltzeko hainbat pauso eman zituen Aldundiak. Bide horretatik, arau-haustete birengatik 1.500 eta 15.000 euro bitarteko isun bi jaso litzake abeltzainak.

Orain, Fiskaltzak espetxe-zigorra eskatu du idien ugazabarentzat. Bizkaiko Fiskaltzak hiru hileko espetxe-zigorra eskatu du abeltzainaren aurka, animaliakaz lan egiteko urte-

beteko gaitasungabetzeagaz batera, Eldiarionorte.es komunikabide digitalak zabaldutako akusazio-idazkiaren arabera.

Hiltamu-heriotza

Ministerio publikoaren ustez, 2014ko gertaera «animaliekiko tratu txarren» kasu bat da, idien jabeak «hainbat anfetamina» eman zielakoan, «irabazteko asmoagaz bakarrik». Ikerketa-emaitzen arabera, abereak hiltamu-egoeran hil ziren, drogak eragin ei zizkielako «itolarrria, erabateko akidura», masailazurren gura ez delako mugimenduak, «ataxia eta muskulu-minak». Epaiketa laster hasiko omen da, baina data ez dago zehaztuta. ◀

Julián Barrientosek Irabazi du Urdulizen

nfisport taldeko Julián Barrientos txirrindulari argentinarak irabazi zuen Urdulizko Andra Mari Sari Nagusiaren 30. edizioa, pasa den irailaren 8an. Barrientos esprintean nagusitu zen, ihesaldia egin zuen tropel txiki batean. Bigarren sartu zen Martí Márquez, Lizarte taldekoa, baina epaileek deskalifikatu egin zuten espaloira igo izanagatik. Taldeka, Aldro Team izan zen lehenengo sailkatua; tarteko helmugei dagokienez, Barrientosek berak irabazi zituen, ihesaldian metatutako puntuei esker. 114 kilometroko proba Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izan zen. Urdulizko lasterke-

tan, Iñigo Elozegi eta Xabier Mikel Azparren gazte-mailako txirrindulariek parte hartu zuten, Europako Txapelketarako prestakuntza gisa.

Gotzon Martin, lehendakari

Urdulizko eta Bermeoko proben ostean, etapa bi baino ez zaizkio gelditzen Lehendakari Txapelketari: Oñati eta Zaldibiako lasterketak, datorren aste-akabuan. Daborduko, Gotzon Martin Euskadi Fundazioko txirrindulari orozkoarrak irabazi du matematikoki sailkapen nagusia, distantzia izugarria eroaten dio-eta txapelketako bigarren sailkatuari. ◀

Munduko Txapelketatik bueltatu da Goiherri

Erandioko Goiherri eta Laukizko Gaztedi sokatira-taldeetako ki-deak astelehenean heldu ziren Loiuako aireportura, Suediako Malmö herrian jokatu den Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketan parte hartu ostean. Loiu, zaleen berotasuna eta harrera instituzionala izan zituzten zain. Besteak beste, Herri Kirolak Federazioko ordezkariak, Lorea Bilbao Euskara eta Kulturako diputatua eta Laukizko alkatea izan ziren harrera hunkigarrian. Pasa den barikuan, finalerdietatik kanpo geratu zen Goiherriko taldea, 600 kiloko modalitate mistoan. Egun berean, Goiherri A-k ere ezin izan



© GOIHERRI

zuen maila hori gainditu gizonetzkoen 640 kiloko lehian. Gaztedikoek, ostera, zorte hobea izan zuten: elastiko gorriagaz, brontzezko domina bi lortu dituzte, eta urrezko bat zein zilarrezko hiru, selekzioaren elastikoagaz. ◀



Lutxana Arraun Elkarteko arraunlari gazteenak uretan entrenatzen hasi dira daborduko. Pasa den barikuan egin zuten aurkezpena behe-mailetak 24 neska-mutilek, klubeko egoitzan. Astelehenean, ostera, Asuan astean hiru aldiz entrenatzen direnak 30 dira. © LUTXANA ARRAUN TALDEA

Alex Sorgente eta Sean Goff, La Kanteran nagusi

Pasa den zapatuan jokatu zen Getxo La Kantera skate-pistan izen bereko txapelketa profesionala. Bertan, Alex Sorgente munduko txapeldun eta aurretik faboritoak irabazi zuen lehia profesionala. Gazte kaliforniarrak 35 segundotan egundoko erakustaldia egin zuen, airekoak, *backsideak*, *frontsideak* eta beste horrenbeste eragiketa abiadura handian. Txapeldunordea Danny León madrildarra izan zen eta Ivan Federico italiarrak bete zuen podiuma. Masters kategorian, Sean Goff ingelesak jantzi zuen txapela, estilo klasiko, dotore eta arina erakutsiz. ◀

eta gainera
hiruka.eusen:




Mercedes Aristeguik irabazi du Albaceteko proba

Getxo Kopa lortu dute Yamamay, Nexus eta Mandovi belaontziek

Leioa Waterpolok eta Askartzak irabazi dute Gabon Kopa

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.



					7	2
		6		8	1	
		1		7		3
	8					5
		7	9	5		3
				4		
6			5			4
	2			4	3	
	4	9	8			5

	2	1			6		7
9		6	8			4	
		5				7	2
6	7				9		
			4	5			
7						1	3
1							6
	3		9				

Soluzioak

5	7	2	3	6	8	9	4	1
9	1	3	6	4	7	8	2	5
4	9	4	8	2	1	5	3	7
7		2	4	6	8	3	5	1
8	3	4	1	5	9	6	7	2
5	1	9	6	7	2	4	8	3
3	8	5	7	2	1	6	9	4
9	4	1	8	3	6	2	5	7
2	6	7	5	9	4	1	8	3

4	7	2	1	6	9	8	3	5
5	6	9	8	3	7	2	4	1
8	3	4	1	5	2	9	6	7
6	9	8	7	4	5	1	3	2
1	5	3	6	8	2	4	7	9
2	4	7	3	1	6	5	9	8
3	1	5	2	4	7	8	6	9
9	2	6	7	8	1	4	5	3
7	8	5	6	9	3	1	2	4

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure ingurukoekiko harreman batzuek gutxi iraungo dute, jagoten ez badituzu. Sabel-kontuak ere, astun izango dituzu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Ikasturte hasiera balia dezakezu garbiketa fisiko eta psikikoa egiteko. Kiroldegian eskaintza zabala daukazu lehenengorako; besterako, lagunak.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zalantza da nagusi zure pentsamenduetan, azken boladan. Burua argi ez baduzu, horoskopoa hau irakurtzeko aukera beti izango duzu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Etorkizun hurbilean espero ez zenituen gastu potolo batzuk egin beharko dituzu. Egoera kontrolpean izateko, egin ahalegina!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Aspaldidanik ezaguna duzun «pertsonaje» horrek ezustekoa emango dizu. Ganoraz jolastuko du zuzaz; adiskidetasun on baten hasiera izan daiteke.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zeure burua gehiago estimatzea komeniko litzazuke: zutaz baliatzen direnei mugaren bat jartzeko unea heldu zaizu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Eskulabur jokatzen zabilta azken hilabetean. Ingurukoek daborduko, ez ordaintzeko erabiltzen dituzun teknikak zerrendatzen hasi dira.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Pertsona kitzikagarri baten bila zabilta, barruko sua apur bat lasaitzeko. Agian, espero duzun baino gehiagorako eman dezake harreman horrek.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Besteak abegitsu eta jator tratatuz gero, bueltan halako erantzuna ere izango duzu sarritan. Halere, pertsonarik «ozpintsuenak» berean segituko du.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Familia-harremanak sendotzeko garaia heldu zaizu. Bota begirada bat ingurura eta aztertu gauzak zelan hobeto ditzakezun.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Makalaldi batetik atera ostean, inoiz baino osasuntsuago sentitzen zara. Dena den, ez zaitez lasaitu; zure gorputzak oraindino zaintza behar du.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Ekaitzaren ostean baretasuna heldu da. Aprobetxa egizu ahal duzun heinean, egoera horrek ez du luze iraungo-eta.

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 33
48001 Algorta-Geltra
Tf. 94 491 27 34
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura ixanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Sukaldean

Egundoko pizza eta musika, Gorlizko Xurrut tabernan



OSAGIAK:

Etxean egindako orea, 5 gazta mota (mozzarella mota bi, urtzeko gazta, Edam, Camembert eta gazta urdina), izokina, oliba beltzak eta oliba olio.

XURRUT PIZZA BAR & MUSIKA

Hormazalanda enparantza 2, 48630 Gorliz
Tel.: 946 771 389
www.xurrut.com

tsasoko olatuen doinuakaz batera, musikaz zuzenean gozatzeko egundoko taberna dago Gorlizko erdigunean: Xurrut. Bertan dasta daitezkeen pizzak famatuak dira UrIBE Kosta osoan, eta bertan egoten diren kontzertuak ere bai. Izan ere, inguruko zein nazioarteko taldeen zuzeneko musika-emanaldiak antolatu ohi dituzte aste-akaburo. Arduradunek azaldu dutenez, domekako kontzertuak izaten dira «handienak». Hala, rock-doinuak entzun bitartean, itzelezko pizzak ahoratzeko aukera eskaintzen dute Gorlizko taberna honetan. Oraingoan, Portobello izeneko pizza aukeratu dute, udaldiari amaiera emateko edo. Mokadu horrek badu bere historia: Frantziako Portobello Bones taldearen oroimenez ipini zioten izen hori: «lau

aldiz etorri ziren hona, eta oso onak ziren. Euren azken kontzertua Xurruten eskaini zuten», sukaldariak azaldu dutenez. Baina, zelan egin daiteke halako pizza gozoa? Has gaitezen bada: lehenengo eta behin, alde aurretik egindako orea zabaldu eta bost gazta motak bota behar ditugu. Jarraian, 370 graduan dagoen labean 10 minutuz sartu eta, ostean, zatitutako izokina eta oliba beltzak gehituko dizkiogu; azkenik, oliba olio zorrotada bat botako diogu gainera. Afaltzeko plater paregabea dugu hau, 20,5 euroren truke lagun bi asetzeko modukoa. Horrez gainera, zer dago hobeagorik Gorlizen bertan egindako garagardo bat baino? Bada, Bihar A.P.A garagardo eskainiko digute bertan, halako plater bat bustitzeko egokiena. ◀

faceguk



Decathlon eta Mercadona, bai?

AINHOA ARDEO
BERANGO



Alde batetik ondo ikusten dut, komertzio-gune horiek hurbil izango ditugulako; halere, horrek guztiak udalerrian orain arte izan dugun lasaitasuna honda dezake.

SARA ESTRADA
BERANGO



Normalean beste lekuetara joan behar gara, eta horrek denbora pilo hartzen du. Bertoko merkatariek horregaz ados ez egotea normala da, baina bizia emango dio herriari.

CARLOS RODELGO
BERANGO



Erosketak egitea ahalbidetuko die herritarrei. Hemen ez dago komertzio askorik; uste dut aberastasuna eta lanpostuak sor ditzakeela inguruko auzokideentzat.

IBAI GORROÑO
SOPELA



Niri ez zait ez ondo ez txarto iruditzen. Agian, orain gaizki ikusten dutenek gerora iritzi aldatuko dute; baina niri ez zait axola, ez daukat ezer horren kontra.

AMAIA GONZALEZ
BERANGO



Momentuz bi enpresentzako esleipenak daude, baina agian gehiago sartuko dituzte. Berango inguru lasaia da, eta baliteke inguru guztia hondatzea horregaz guztiagaz.

Dastaketa-fitxa

GARAGARDOA: Bihar A.P.A.

GARAGARDOTEGIA: Bihar garagardo.

OSAGIAK: Ura; Amerikako *cascade* eta Ingalaterrako *fuggles* lupulu aromatikoak eta *pale ale* malta, txigortutako ukituagaz.

DASTAKETA: Hori koloreko *pale ale* amerikarra; hasieran urre-kolorekoa, argitsua baina lausoa. Maltazko usain leun eta orekatua, lore eta fruta zitriko ukituakaz. Zapora mingotsa.


%5,5 alk. bol.

biharbeers@gmail.com

664 150 787



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua